Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

# UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2023IPLE0002
**Eguna:** 2023-02-28
**Ordua:** 19:00 – 19:25
**Tokia:** Areto Nagusian

**Bertaratuak**

- Xabier Urdangarin Lasa ........................................................................... Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda..............................................................Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena.................................................................Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez .................................................................Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez ...............................................................................Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide .........................................................................Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz ....................................................................Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües............................................................... Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro.........................................................................Astigarragako EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia ........................................................................Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco............................................................................Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo...................................................................................Udal-talde Sozialista
- Olaia Pastoriza Santos..........................................................................Astigarragako EAJ-PNV

**Idazkaria**

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Z | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| Zinegotzi berriaren kargua hartzea | 1. | Toma de posesión del cargo de la nueva concejala. |
| 2023ko urtarrilaren 31ko akta onartzea. | 2. | Aprobación del acta de 31 de enero de 2023. |
| Bateragarritasun eskaera | 3. | Solicitud de compatibilidad. |
| Landa-eremuan biztanle-entitate bereziak sortzea. | 4. | Creación de entidades singulares de población en el ámbito rural. |
| Astigarragako udalean ezkontza zibilen ospakizunak arautzen dituen arautegia | 5. | Reglamento regulador de las celebraciones de bodas civiles en el ayuntamiento de Astigarraga |
| Astigarragan hileta edo omenaldi zibilak baimendu eta egiteko ordenantza | 6. | Ordenanza para la autorización y celebración de funerales u homenajes civiles en Astigarraga |
| Nerabe zerbitzuaren erabilera araudia. | 7. | Reglamento de uso del servicio para a adolescencia. |
| Ostalaritza eta jatetxeak lurzoruak erabiltzeko ordenantza erregulatzailea. | 8. | Ordenanza reguladora del uso de suelos en hostelería y restauración. |
| Udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuaren 2 loteetako kontratuak luzatzea. | 9. | Prórroga de los contratos de los 2 lotes del servicio de limpieza de los edificios municipales. |
| Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala. | 10. | Declaración institucional del 8 de Marzo |

| | | |
|---|---|---|
| Informazio, galdera eta eskariak. | *11.* | Información, ruegos y preguntas. |

**Esan-eginak eta erabakiak**

| | |
|---|---|
| **<u>1.- Zinegotzi berriaren kargua hartzea</u>** | **<u>1.- Toma de posesión del cargo de la nueva concejala.</u>** |
| Alkateak azaldu du Antton Costa zinegotziak maiatzean egin zioela uko bere karguari, eta orain arte hutsune hori bete ez izana herritarrekiko begirune ezatzat kalifikatu ondoren, hitza pasa dio udal-idazkariari, eta OLAIA PASTORIZA SANTOS gonbidatu da gainerako zinegotziekin batera osoko bilkuran eserlekua hartzera. | El alcalde explica que el Antton Costa renunció a su cargo en el mes de mayo y tras calificar como falta de respeto a la ciudadanía la falta de cobertura de dicha vacante hasta la fecha, cede la palabra a la Secretaria Municipal, y se invita a OLAIA PASTORIZA SANTOS a coger asiento en el Pleno junto con el resto de concejalas y concejales. |
| Udal-idazkariak azaldu du; batetik, Hauteskunde-Batzorde Zentralak otsailaren erdialdean bidali duela Olaia Pastoriza Santos-en alde egindako zinegotzi-kredentziala edo aldarrikatze agiria; eta bestetik, zinegotzi hautetsiak legeak eskatutako aitorpenak egin dituela (ondasunarena, jarduerena eta baterazintasunarena) eta aurkeztu duela zergen informazio agiria. Beraz, zinegotzi kargua hartzeko baldintzak betetzen direla. | La secretaria informa por un lado, de que la Junta Electoral Central ha remitido a mediados de febrero la credencial de concejala expedida a favor de Olaia Pastoriza Santos; y por otro, que la concejala electa ha realizado las declaraciones exigidas por la ley (de bienes, actividades e incompatibilidades) y ha presentado la información fiscal exigida. Por lo que se cumplen los requisitos para acceder al cargo de concejala. |
| Jarraian, udal-idazkariak zina hartu dio, horretarako galdera hau eginaz: | A continuación, la Secretaria ha procedido a tomarle juramento, formulándole la siguiente pregunta: |
| *OLAIA PASTORIZA SANTOS ZIN EGITEN DUZU ZINEGOTZIAREN EGIN BEHARRAK ZINTZO ETA LEGEA ERRESPETATUZ BETEKO DITUZULA?* | *OLAIA PASTORIZA SANTOS ZIN EGITEN DUZU ZINEGOTZIAREN EGIN BEHARRAK ZINTZO ETA LEGEA ERRESPETATUZ BETEKO DITUZULA?* |
| Zinegotziak zin egin du eta karguaren jabetza hartu du. | La concejal jura el cargo, y toma posesión del cargo. |

| | |
|---|---|
| **<u>2.- 2023ko urtarrilaren 31ko akta onartzea.</u>** | **<u>2.- 2023ko urtarrilaren 31ko akta onartzea.</u>** |
| Olaia zinegotzia abstenitu egin da, aurreko bileran zinegotzi ez zenez, egon ez zelako. Mikel zinegotzia ere abstenitu egin da, aurreko bilkurara bertaratu ez zelako. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta **onartu** egin da. | La concejala Olaia se abstiene por no estar presente en la sesión anterior, al no ser concejala. El concejal Mikel también se abstiene, por no haber asistido a la sesión anterior. El resto, en cambio, vota a favor. Por lo que se **aprueba** el acta. |

| | |
|---|---|
| **<u>3.-Bateragarritasun eskaera</u>** | **<u>3.- Solicitud de compatibilidad.</u>** |
| Alkateak adierazi ondoren eskaera %40eko lanaldia duen langile batek egin duela eta lege estaldura duela, kudeaketa eta pertsonala batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin: | El alcalde tras señalar que la solicitud la ha realizado una trabajadora con una jornada del 40% y que tiene respaldo legal, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Gestión y Personal: |
| ***Lehena.-*** *Saioa Sese Minguez langileari* | ***Primero.-*** *Conceder a Saioa Sese Minguez* |

*bateragarritasuna onartzea, Cristina Enea Fundazioarentzat lan egiteko.*

***Bigarrena.-** Saioa Sese Minguez langileari jakinaraztea bateragarritasuna baldintzatuta dagoela honako baldintza hauek betetzera:*

*a) Bigarren lanpostuak ezin izango du eragotzi edo kaltetu Astigarragako Udalean bitarteko funtzionario gisa dituen betebeharrak zorrotz betetzea, ezta haren inpartzialtasuna edo independentzia ere.*

*b) "udalhitz" hitzarmenak lizentzia, baimena eta oporrei buruz xedatutakoa bete beharko da.*

***Hirugarrena**.- Bateragarritasunaren aitorpena argitaratzea udalaren gardentasun-atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 8.1.g artikuluan xedatutakoa betetzeko.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

*compatibilidad para trabajar para la Fundación Cristina Enea Fundazioa.*

***Segundo.-** Notificar a Saioa Sese Minguez que la compatibilidad estará sujeta al cumplimiento de los siguientes requisitos:*

*a**)** El segundo puesto no podrá impedir o menoscabar el estricto cumplimiento de sus deberes como funcionaria interina en el Ayuntamiento de Astigarraga, ni comprometer tampoco su imparcialidad o independencia.*

*b) Se debera de cumplir lo dispuesto por "udalhitza" en relacion a licencias, permisos y vacaciones.*

***Tercero.-** Publicar el reconocimiento de la compatibilidad en el portal de transparencia del Ayuntamiento, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1.g de la Ley 19/2013 de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.*

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

## 4.- Landa-eremuan biztanle-entitate bereziak sortzea.

Alkateak entitate bereziak sortzearen beharra azaldu ondoren, Obrak eta Zerbitzuak batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena**.- Astigarragako udalerriko lurzoru urbanizaezinean ondorengo biztanle-entitate bereziak sortzea:*

1. *Oialume.*
2. *Santiagomendi.*
3. *Perurena.*
4. *Txoritokieta.*
5. *Mendiaundi.*

***Bigarrena.-** Biztanle-entitate bakoitza I. eranskineko planoan jasotako eremuarekin eratuko da, eta II. eranskineko eraikinek osatuko dute.*

***Hirugarrena.**- Udal erroldan eta gainontzeko udal espedienteetan dagozkion aldaketak egitea.*

## 4.- Creación de entidades singulares de población en el ámbito rural.

El alcalde tras explicar la razones de crear las entidades, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Obras y Servicios:

***Primero.-** Crear en el suelo no urbanizable del término municipal de Astigarraga, las siguientes entidades singulares de población:*

1. *Oialume.*
2. *Santiagomendi.*
3. *Perurena.*
4. *Txoritokieta.*
5. *Mendiaundi.*

***Segundo.-** Cada entidad de población se constituirá con el área recogida en el plano del anexo I, y de él formarán parte los edificios del anexo II.*

***Tercero.-** Efectuar las modificaciones oportunas en el Padrón Municipal y demás expedientes*

***Laugarrena.-*** *Akordio honen berri ematea Behemendi Donostialdea-Bidasoako Landa Garapeneko Elkarteari, INEri eta Eustat-i.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

*municipales.*

***Cuarto.-*** *Notificar el presente acuerdo a la Asociación de Desarrollo Rural de Donostialdea-Bidasoa Behemendi, al INE y al Eustat.*

*A*cto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

**5.- Astigarragako udalean ezkontza zibilen ospakizunak arautzen dituen arautegia**

Alkateak azaldu ondoren arautegiaren beharra eta edukiaren nondik norakoak, bozeramaile batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehenengoa.****-Hasierako izaeraz onartzea "Astigarragako udalean ezkontza zibilen ospakizunak arautzen dituen arautegia"*

**Bigarrena**.- *Toki Araubidearen oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean.*

Jarraian, bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da honako akordio hau:

**5.- Reglamento regulador de las celebraciones de bodas civiles en el ayuntamiento de Astigarraga**

El alcalde tras explicar la necesidad de este reglamento y los pormenores de su contenido, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Junta de Portavoces

***Primero***.- *Aprobar inicialmente la "Reglamento regulador de las celebraciones de bodas civiles en el ayuntamiento de Astigarraga".*

***Segundo.***- *De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local, someterlo a información pública por el plazo de 30 días hábiles.*

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba por unanimidad** el siguiente acuerdo:

**6.- Astigarragan hileta edo omenaldi zibilak baimendu eta egiteko ordenantza**

Alkateak azaldu ondoren ordenatzaren beharra eta edukiaren nondik norakoak, bozeramaile batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehenengoa.****-Hasierako izaeraz onartzea "Astigarragan hileta edo omenaldi zibilak baimendu eta egiteko ordenantza "*

**Bigarrena**.- *Toki Araubidearen oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

**6.-Ordenanza para la autorización y celebración de funerales u homenajes civiles en Astigarraga**

El alcalde tras explicar la necesidad de esta ordenanza y los pormenores de su contenido, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Junta de Portavoces;

***Primero***.- *Aprobar inicialmente la ""Ordenanza para la autorización y celebración de funerales u homenajes civiles en Astigarraga.*

***Segundo.***- *De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local, someterlo a información pública por el plazo de 30 días hábiles.*

Acto seguido se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

**7.-Nerabe zerbitzuaren erabilera araudia.**

Alkateak azaldu ondoren arautegiaren beharra eta edukiaren nondik norakoak, kirola, jarduera fisikoa eta gazteria batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehenengoa***.- *Hasierako izaeraz onartzea "Astigarragako nerabentzako zerbitzuren erabilera araudia"*

***Bigarrena***.- *Toki Araubidearen oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, jendaurrean jartzea 30 egun balioduneko epean.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

**7.- Reglamento de uso del servicio para a adolescencia.**

El alcalde tras explicar la necesidad de este reglamento y los pormenores de su contenido, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de deporte, actividad física y juventud:

***Primero***.- *Aprobar inicialmente la "Reglamento de uso del servicio para la adolescencia de Astigarraga".*

***Segundo***.- *De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local, someterlo a información pública por el plazo de 30 días hábiles.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

**8.- Ostalaritza eta jatetxeak lurzoruak erabiltzeko ordenantza erregulatzailea.**

Alkateak azaldu du ordenantza berrikusteko partehartze prozesu bat egin zela, eta testuaren aldaketa puntualerako proposamena bertan egindako ekarpen eta iritziekin egin dela.

Jarraian, aldaketaren nondik norakoa azaldu ditu, eta Obrak eta Zerbitzuak batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena.-*** *Hasierako izaeraz onartzea Astigarragan ostalaritzarako eta jatetxe-arlorako lurzoruaren okupazioak arautzen dituen ordenantzaren 9., 10., 16., 18., 19., 20., 22. eta 24. artikuluen eta xedapen iragankorraren aldaketa eta horren testu bategina.*

***Bigarrena.-*** *Toki Araubidearen oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **onartu** da aldeko 8 botoekin (*Astigarragako EHBildu eta Udal talde Sozialista)* eta 5 abstentzioekin *(Astigarragako EAJ-PNV)*

**8.-Ordenanza reguladora del uso de suelos en hostelería y restauración.**

El alcalde explica que se ha llevado a cabo un proceso participativo de revisión de la Ordenanza, y que propuesta de modificación puntual del texto se ha llevado a cabo con las aportaciones y opiniones realizadas en el mismo.

A continuación explica los pormenores de la modificación, y presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Obras y Servicios:

***Primero.-*** *Aprobar inicialmente la modificación de los artículos 9, 10, 16, 18, 19, 20, 22 y 24 y de la disposición transitoria de la Ordenanza reguladora de las ocupaciones de suelo para hosteleria y restauración en Astigarraga, y el texto refundido de la misma.*

***Segundo.-*** *De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/1985 de Bases de Régimen Local, someter_el expediente a información pública durante el plazo de 30 días hábiles.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen con 8 votos a favor (Astigarragako EHBildu y *Grupo Municipal Socialista*) y 5 abstenciones (*EAJ-PNV de Astigarraga*).

**9.- Udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuaren 2**

**9.- Prórroga de los contratos de los 2 lotes del**

**loteetako kontratuak luzatzea.**

**servicio de limpieza de los edificios municipales.**

Alkateak Obrak eta Zerbitzuak batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu da onartua izan dadin:

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Obras y Servicios:

***Lehena*.-** *Udal eraikinen garbiketa zerbitzua emateko (1.LOTEA), Astigarragako udalak UTE ASTIGARBI enpresarekin sinatuta duen kontratua urte betez luzatzea.*

***Primero***.-*Prorrogar el contrato de servicio de limpieza de los edificios públicos (LOTE 1) por un periodo de un año, firmado entre el Ayuntamiento de Astigarraga y UTE ASTIGARBI.*

***Bigarrena.-*** *Udal eraikinen garbiketa zerbitzua emateko (2.LOTEA), Astigarragako udalak GARBIALDI, S.A. enpresarekin sinatuta duen kontratua urte betez luzatzea.*

***Segundo***.- *Prorrogar el contrato de servicio de limpieza de los edificios públicos (LOTE 2) por un periodo de un año, firmado entre el Ayuntamiento de A*stigarraga y GARBIALDI, S.A.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

## 10.- Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala.

## 10.- Declaración institucional del 8 de Marzo

Alkateak testu hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente texto:

***Martxoaren 8a, Zaintzen duen herria helburu***

***8 de marzo - objetivo el pueblo que cuida.***

*Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna da. Emakume guztien eskubideak aldarrikatzeko eguna. Aurtengoan, Euskal Herriko mugimendu feministak, Denon bizitzak erdigunean lelopean, zaintzaren sektoreko langileen lan-baldintzak hobetzeko eta zerbitzu publikoen kalitatea defendatzeko deia luzatzen du.*

*8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres. Día de reivindicación de los derechos de todas las mujeres. Este año, el movimiento feminista de Euskal Herria, con el lema Denon bizitza en el centro, hace un llamamiento a la mejora de las condiciones laborales de las personas trabajadoras del sector del cuidado y a la defensa de la calidad de los servicios públicos.*

*Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela ukaezina da. Genero-desberdintasun estrukturalek hor jarraitzen dute. Emakumeen gain jartzen da zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea. Zaintza sektorea erabat merkantilizatuta, feminizatuta, prekarizatuta eta desaraututa dago. Pandemiak agerian utzi du feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaurgarria eta dependientea da.*

*Es innegable que estamos inmersos en una crisis de cuidados. Persisten las desigualdades estructurales de género. Las mujeres asumen la mayor parte de la carga de los cuidados, remunerada y no remunerada. El sector de cuidados está totalmente mercantilizado, feminizado, precarizado y desregulado. La pandemia ha puesto de manifiesto lo que desde hace tiempo estaba reivindicando el feminismo: una vida vulnerable y dependiente.*

*Krisi honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan. Gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarrizketa-guneak bultzatu eta*

*Las respuestas integrales que respondan adecuadamente a esta crisis son urgentes en todos los ámbitos y niveles. Nuestro país debe poner en marcha una dinámica transformadora y compartida, reconociendo este esfuerzo y compromiso desde las instituciones, recogiendo propuestas y reivindicaciones e impulsando y reforzando*

*indartuz. Bada garaia denon bizitza erdigunean jarriko duen eraldaketa sozial baten bidean pausoak ematen hasteko.*

*Horregatik guztiagatik, Astigarragako Udalak honako hau erabaki du:*

1. Astigarragako Berdintasunerako III. Plana (2020-2023 epealdiari dagokiona) ebaluatzea eta egungo erronkak identifikatzea.

2. *Eguneko arreta zerbitzua berraztertzea eta berrartzeko baldintzak zehaztea. Une honetan bertan behera dagoen zerbitzu honen helburua honako hau da: mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran (I. graduan) dauden adinekoei autonomiari eusten laguntzea eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzea, isolamendu-egoerak konpentsatuz, behar izanez gero.*

3. *Etxez etxeko laguntza-zerbitzua gauez emateko beharrik ote dagoen, horrek izango lituzkeen ondorioak eta bideragarria izango litzatekeen aztertzea. Gaur egun egunez ematen da zerbitzu hau.*

4. *Zaintzaileen ongizate emozionala zaintzeko eta sustatzeko aukerak aztertzea. Udalak helburu horrekin "Zaintzailea zainduz" tailerra antolatu zuen. Abiapuntua hori izanik, aztertu nahi dugu batetik, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzako GFAk eskaintzen duen "Sendian" programaren indarguneak eta hobetzekoak eta, bestetik, mendekotasun arriskuan dauden pertsonen zaintzaileentzat antolatu daitezkeen ekimenak.*

5. *Bakardade egoeran dauden pertsonen ongizatea nola sustatu daitekeen hausnartzea (bereziki landa-eremuan bakarrik bizi direnen egoera aintzat hartuta).*

6. *2021-2022an burututako herriko eta Udaleko zaintzaren eta erantzunkidearen egoerari buruzko diagnostikoaren lanketa egitea.*

7. *2017ko irisgarritasun-plana eguneratzea dugu prozesu parte-hartzaile baten bidez, herria pertsona guztientzat, haien egoera edo gaitasunak edozein direla ere, irisgarria izan dadin nahi dugulako.*

8. *Euskal Herriko Mugimendu Feministak*

*espacios de encuentro y diálogo. Es hora de empezar a dar pasos en el camino de una transformación social que ponga en el centro la vida de todos.*

*Por todo ello, el Ayuntamiento de Astigarraga acuerda:*

*1. Astigarragako Berdintasunerako III. Evaluación del Plan (correspondiente al periodo 2020-2023) e identificación de los retos actuales*

*.*

*2. Revisión del servicio de atención diurna y determinación de las condiciones de la readmisión. El objetivo de este servicio, actualmente en extinción, es contribuir al mantenimiento de la autonomía de las personas mayores en riesgo de dependencia o en situación de dependencia (grado I) y a su permanencia e integración en su entorno vital habitual, compensando, en su caso, situaciones de aislamiento.*

*3. Analizar la necesidad y viabilidad de prestar el servicio de ayuda a domicilio durante la noche. En la actualidad este servicio se presta en el día a día.*

*4. Analizar las posibilidades de cuidar y promover el bienestar emocional de las personas cuidadoras. Con este fin el Ayuntamiento organizó un taller de Cuidador. Partiendo de este punto de partida, queremos analizar, por un lado, las fortalezas y mejoras que ofrece la DFG para las personas cuidadoras de personas en situación de dependencia en Sendian y, por otro, las iniciativas que se pueden articular para las personas cuidadoras de personas en riesgo de dependencia.*

*5. Reflexionar sobre cómo promover el bienestar de las personas en situación de soledad (especialmente teniendo en cuenta la situación de las personas que viven solas en el medio rural).*

*6. Elaboración del diagnóstico de la situación del cuidado y corresponsabilidad en la localidad y en el Ayuntamiento realizado en 2021-2022.7.-*

*7.-La actualización del Plan de Accesibilidad 2017 es un proceso participativo que busca que la localidad sea accesible para todas las personas, independientemente de su situación o capacidades.*

*8. Alinearse con la dinámica iniciada por el*

*abiatu duen dinamikarekin bat egitea, hasteko eta behin, Martxoaren 8ko deialdiak babestuz eta herritarrei bertaratzeko deia eginez. Hortik aurrera landuko den prozesuan eragile aktibo bezala parte hartzeko eta ardurak hartzeko konpromisoa adierazten dugu.*

Nerea zinegotziak hitza hartu du eta adierazi pozgarria dela hiru alderdiak ados jarri izana, horrelako zeharkako gai batean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta testua **aho batez onartu** da.

*Movimiento Feminista de Euskal Herria, apoyando en primer lugar las convocatorias del 8 de marzo y haciendo un llamamiento a la ciudadanía. Expresamos nuestro compromiso con la participación como agente activo y la asunción de responsabilidades en el proceso que se trabajará a partir de ahí.*

Toma la palabra la concejala Nerea y manifesta la satisfacción de que las tres partidos se hayan puesto de acuerdo en una cuestión transversal de este tipo.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el texto por **unanimidad**.

## 11.- - Informazio, galdera eta eskariak.

**a.- Donostia ibilbideko obrak.**

Alkateak azadu du obra horiek martxa onean doazela, eta aurreikusten dela, obra bukatu gabe egon arren, martxoaren bukaera aldera errepidea irekitzeko moduan egotea.

**b.- Zero Zabor Udalerriak ziurtapena.**

Alkateak azaldu du programaren barruan egin beharreko auditoria egin dela, eta Astigarragak bi izar lortu dituela, eta hirugarrena lortzetik gertu gelditu dela.

**c.- Herriko jolas eremuak.**

Alkateak azaldu du Murgia parkeko jolas eremua eraldatzeko kontratua esleitu berri dela, eta laster jarriko dela martxan ibai-parkearena eraldatzeko lizitazioa.

Murgia parkekoari dagokionez, ikastolako irakasle batek adierazi du eremu hori 2 urteko haurrekin erabiltzen dutela, eta galdetu du obrak iraun bitartean erabilgarri egongo den.

Azaldu zaio eraldaketak ez duela obra zibil handirik behar eta jolasak ere ez direla bertan egingo, baina epe labur batean ezingo dela eremua erabili.

## 11.- Información, ruegos y preguntas

**a.- Obras de Donostia ibilbidea.**

El alcalde ha explicado que las obras llevan buena marcha, y que se prevé que a finales de marzo, aún cuando las obras no esten terminadas, se pueda abrir la carretera.

**b. Certificación Zero Zabor Udalerriak.**

El alcalde ha explicado que ya se ha realizado la auditoria que había que hacer dentro del programa, que Astigarraga ha obtenido 2 estrellas y ha quedado cerca de conseguir la tercera.

**c.- Zonas de juego del municipio.**

El Alcalde explica que se acaba de adjudicar el contrato de renovación de la zona de juegos del parque de Murgia y que en breve se pondrá en marcha la licitación para la del parque fluvial.

En cuanto al parque de Murgia, una profesora de la ikastola dice que utilizan este espacio con niños y niñas de 2 años y pregunta si estará disponible durante la obra.

Se le explica que la renovación no requiere mucha obras civiles y que los juegos tampoco se van a construir en el terreno, pero que durante un breve espacio de tiempo no se podrá utilizar la zona.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko otsailaren 28an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria